

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2019KO AZAROAREN 29KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2018/2019 IKASTURTEAN HABEREN C1 ETA C2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK EGIAZTATU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEN DIZKIENA.

HABEren zuzendari nagusiaren 2019ko abuztuaren 28ko Ebazpenaren bidez 2018/2019 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen. Ebazpena irailaren 9ko EHAAren argitaratu zen.

Deialdi honetan zehaztutako prozedura eta irizpideak aplikatu ondoren eta deialdi bereko 7. artikulua ezarritakoari jarraikiz, honako hau

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.**- HABEren C1 eta C2 mailak edo baliokideak egiaztatu eta I. eranskinean jasotzen diren ikasleei adierazitako dirulaguntza ematea, dirulaguntzaren zenbateko osoa 100.732,39 euro delarik. Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak, bakoitzak ordaindu eta egiaztatu dituen matrikula-kopuruak, HABEK aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 9. artikulua dioenari begira.

**Bigarrena.**- II. eranskinean aipatzen diren ikasleei dirulaguntzarik ez ematea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren egoitzetako iragarki-tauletan erantsiz eta HABEren web orrialdean argitaratuz.

**Laugarrena.**- Ebazpen honetako I. eranskinean esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

**Bosgarrena.**- Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2019ko azaroaren 29an.

HABEren zuzendari nagusia,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

**HABE**  
Helduen  
Alfabetatze eta  
Berreuskalduntzerako  
Erakundea